

1. Traduction en français de la critique parue dans Berria
2. Critique en langue basque (texte original)

1. Traduction en français

L'abstraction lyrique

13-09-2015 / Agus Perez

'Zisnearen azken kantuak' / Les derniers chants du cygne

Mizel Théret chorégraphe labourdin, a ouvert le festival « Le Temps d'aimer » au théâtre du Colisée à Biarritz, dans une salle comble, avec une pièce empreinte d'abstraction lyrique. Pour ma part, j'ai découvert son travail lors d'une belle représentation de la pièce « *Oroitzen naiz* »/ Je me souviens (2011), pièce créée avec et autour de trois grands maîtres de la danse en Pays-Basque : Jean Nesprias, Filipe Oyhaburu et Koldo Zabala.

Ensuite il y a eu la création de la magnifique pièce « *Hiru zitroin lur hotzean* » / Trois citrons sur le sol froid (2013), et à présent cette nouvelle pièce où le chorégraphe approfondit le sillon fécond de l'abstraction lyrique.

Avec ce spectacle –dédié par ailleurs à Koldo Zabala, décédé en 2014- le chorégraphe s'est inspiré du monde des oiseaux, de leur élégance ; en réalité, c'est un prétexte, lui permettant d'évoquer sa propre mélancolie.

Pour réaliser ce voyage intimiste, il a fait appel à sa partenaire de longue date, la danseuse Johanna Etcheverry, et ensemble ils ont donné forme à cette pièce-élégie intitulée « *Zisnearen azken kantuak* » (Les derniers chants du cygne), dans un espace scénique totalement vide, avec un éclairage sombre, une musique âpre, celle pour contrebasse et piano de Sofia Gubaidulina.

Dans cette pièce sans concession, l'épure et la perfection priment ; de ce monde des oiseaux, le chorégraphe en a tiré des postures, et des sauts empreints d'une énergie suave, distillés de manière subliminale, le tout en adéquation avec le propos de la pièce.

2. Article original, en langue basque

Abstrakzio lirikoak

2015-09-13 / Agus Perez

'Zisnearen azken kantuak'

Lekua: Miarritzeko Colisee antzokia. **Data:** Irailaren 11

Mizel Theret koreografo lapurtarraren abstrakzio lirikoak eman dio hasiera aurtengo Maitaldia jaialdiari, Miarritzeko Colisée aretoa ia goraino beteta zegoela. Nik behintzat *Oroitzen naiz* izeneko piezarekin (2011) ezagutu nuen bere lana, hiru euskal dantzari nagusiren omenez Jean Nesprias, Philippe Oihanburu eta Koldo Zabala egindako emanaldi polit hartan. Geroago etorri zen *Hiru zitroin lur gainean* zoragarri hura (2013), eta orain are gehiago sakondu du abstrakzio lirikoaren bide emankorreen.

Izan ere, Koldo Zabala gogoratu nahi izan du estreinaldi honekin 2014an zendu zen, eta hegaztien dotorezia hartu du aitzakiatzat bere baitako malenkoniari bidea emateko. Bidaia intimistari ekiteko Johanna Etcheverri aspaldiko partaidea izan du lagun, eta bien artean eman diote forma *Zisnearen azken kantuak* izeneko elegiari, agertoki zeharo hutsean, argiztapen tenebrista baten pean eta Sofia Gubaidulinaren biolontxelo eta piano pasarte latzetan bilduta. Kontzesiorik gabeko pieza honetan araztasuna eta perfekzioa izan dira nagusi, eta hegaztiengandik jasotako inspirazioa jarrera estatikoetan eta energia leuneko jauzien bidez irudikatu dira, subliminalki, piezaren planteamendu sakonari zegokion bezala.

1. Traduction en français de la critique parue dans la Gazette du festival
2. Critique en langue basque (texte original)

1. Traduction en français

Du chant d'oiseau à l'envol



Hier le festival de danse « Le Temps d'aimer » a débuté à tire-d'aile, et aussi en silence. En effet, la représentation de la création « Zisnearen azken kantuak » (Les derniers chants du cygne) a d'abord réuni un public très nombreux.

Dans cette création Mizel Théret s'est (en partie) inspiré de la gestuelle des oiseaux, et notamment celle des cygnes, accompagné en cela par Johanna Etcheverry, sa partenaire de longue date.

Les danseurs sont vêtus de noir, bras nus qui se détachent des corps tels des ailes d'oiseaux, sans que pour autant ils n'entrent dans un quelconque mimétisme. Cette création parle de la dualité, celle entre l'homme et la femme, l'animal et l'humain, la lumière et l'obscurité, le son et le silence, et notamment celle entre la mort et la vie. Le chorégraphe dit « puiser dans ce que la tradition basque lui a légué pour ensuite développer en toute liberté une gestuelle qui travaille l'alliance entre le corps, l'espace et le temps ».

Bras ouverts, vers le haut et le bas, comme prêts à s'envoler une dernière fois, les danseurs développent une danse d'affinité, intime et douce. Cette création évoque aussi un monde sur le point de mourir. Tout d'abord c'est dans un silence inquiet que la danseuse entre en premier sur scène, déployant ses « ailes ». Comme cela est souvent le cas chez les oiseaux elle est rejointe par son partenaire ; le duo de danseurs se déplace sur un plateau nu, pratiquement sans jamais se toucher, comme deux oiseaux proches de la mort.

Lentement, le silence fait place à la musique, comme la nuit qui s'estompe pour faire place au jour. La musique pour contrebasse de Sofia Gubaidulina, alterne sonorités douces et âpres, amenant le spectateur vers un monde onirique. Les lumières découpent l'espace, alors que l'ombre de la mort est présente. Puis encore le silence, avec un danseur allongé au sol pendant que l'autre propose un solo autour de l'envol. Subitement, le tremblement des cordes de la contrebasse nous sort de notre rêve, et le duo entame une danse à la manière d'un envol nuptial.

La dernière séquence est le reflet du long travail commun réalisé par les deux danseurs au fil des ans ; au moment où ils entrent enfin en contact ils ne font plus qu'un, laissant disparaître toute l'affinité qui les unit. Peu à peu, les deux partenaires « ramassent leurs ailes », et quand revient la douceur du silence, la danse s'éclipse, baignée d'obscurité, sous les applaudissements chaleureux des spectateurs.

2. Critique en langue basque (texte original)

Xoriaren kantutik hegaldira

Hegalkada ixil batean hasi da atzo maitaldia. Hala nola, saldo handian bildu du publikoa « Zisnearen azken kantuak » emanaldiak. Mizel Therek hegaztien, batez ere beltxargaren jestuak dantzarekiko lantzen ditu sorkutza honetan, Johanna Etcheverry, ohiko parekidearekin.

Beltzez jantzirik triskarien besoak larru gorrian gorputzetatik bereizten dira txorien hegalen antzera, sekulan kopiaketan sartu gabe. Kreaioak bikoiztasuna erakusten du, izan generoaren aldetik emazte gizon artekoa, animale eta gizonen artekoa, argia eta ilunaren artekoa, soinua eta ixiltasuna eta batez ere heriotza eta biziaren artekoa.

Koregrafoak « gorputza, lekua eta denbora lantzen duen jestuen arteko elkartzea gauzatzen du euskal usantzak utzitakoa askeki gauzatuz ».

Besoak zabalik, gora ta behera, gora ta behera azken aldi batentzat airatzeko prest bezela, bi dantzariak gogaidetasunez dantza intimo eta goxoa erakusten dute. Sorkuntzak hiltzorian den mundu bat aurkezten du. Ixiltasun urdurian sartzen da lehen dantzaria hegala zabalduz.

Txorien erakustaldietan bezela bikotekidea agertzen da. Ingurumen soilean bikotea kasik sekulan bata bestea hunkitu gabe ibiltzen dira eszenatokian, hiltzeko prest diren bi hegaztiren gisara. Emeki emeki, ixiltasunak musikari uzten dio lekua, gauak egunari egiten dion bezela. Sofia Gubaidulinaren kontrabasuaren soinuan, musikak adiarazten ahal duen goxotasuna eta gogortasuna txankadatzen ditu eremu ametskor batera ikuslea eramanez. Argi jokoek lurra zatitzen dute heriotzaren itzala hurbiltzen delarik. Bat batean, ixiltasuna berriro, batek hilarena egiten duen bitartean beste dantzariak bakarkako airealdi bat hasten du. Supituki basuaren soken dardarak gure ametsetik ihestarazten gaitu eta bikoteak bere dantzadia berritz hartzen du, eztei-hegaldi baten gisan. Elkarren arteko lan luzearen ispilua da azken pieza eta azkenean elkar hunkitzerakoan bikoteak bat egiten du, elkar lotzen dituen kidetasuna agertaraziz. Eta pixkanaka, pixkanaka, bi kideek hegoak biltzen dituzte ixiltasunaren leuntasuna itzultzen delarik bukatzera doa dantza, iluntasunez inguratutik ikusleen txalo beroaren pean.

Oihana Zamponi-Galé